

GREBARA

JOATEKO GARAIAN
MAIZ EGITEN DIREN
GALDERAK

Grebarako dugun
eskubideari buruzko gida
laburra



1. Enpresari jakinarazi behar diot greba egin behar badut?

Ez, inola ere ez. Enpresak greba egingo ote duzun galdetuz gero, ez da erantzunik eman behar. Zenbait kasutan, galdera bera greba eskubidearen urraketa izan daiteke, hori dela eta, kasu zehatz hori aztertu beharko da (ea galdera hori bera ez ote den bortxazkoa, greba egiteko borondateari oztopo egiten diona, etab.). Baina ez zaude inoiz erantzutera behartua.

2. Enpresak errepresaliarik har dezake greba eskubidea erabiltzeagatik?

Ez. Edozein errepresaliak zigorra edo kaleratzea ezeztatzea eragingo luke, oinarrizko eskubide bat baita. Horrez gainera, zigor administratiboak ezartzea eragin dezake, eta zenbait kasutan, zigor penalak.

3. Zer gertatzen da enpresak legea urratu eta errepresaliak eragiten baditu?

Beste edozein lan-eremutan bezala, enpresak errepresaliak debekatuta izan arren, zenbaitetan gertatzen da. Errepresaliak eragiten baditu, kaleratze kasuan bereziki, sindikatura jo behar duzu. Kaleratzea baliogabea izango da, baina hori egiaztatzeko kaleratze hori greba eskubidearen erabilerarekin lotuta dagoela frogatu beharko da, alegia, grebara joateagatik kaleratu zaituztela. Enpresa beste arrazoi bat erabiltzen saiatuko da, estalki gisa.

4. Kaleratzen edo zigortzen banaute, zer egin behar dut?

EZ SINATU EZER. Kitapen bat sinatzeak esan nahi du uko egiten diozula neurriak hartzeari. Jo berehala sindikatura, epeak laburrak baitira.

5. Enpresak nire betekizunetan ordezkari nazake?

Ez. Legez kanpokoak dira kanpoko eskirolajea (zentrotik kanpoko langileak erabiltzea), barnekoa (grebalaria ordezkatzeko beste langile batzuen funtzioak edo lanpostua aldatuz) eta teknologikoa (bitarteko automatikoen bidezko erreleboa).

6. Gizarte Segurantzaren kotizazioan eta nire lansarian zein ondorio ditu greba eskubidea erabiltzeak?

Greban zehar ez da Gizarte Segurantzaren kotizazioa etenda geratzen da, ondorioz, greba eguneko lansaria eta aparteko haborokinen parte proportzionala deskontatuko zaizu. Ez da deskonturik egiten oporren parte proportzionalen, ezta jaiegun, asteko atseden edo bertaratze eta puntualitate plusetan ere (azken honen kasuan, hitzarmen kolektiboetan modulatu izan daiteke).

7. Gutxieneko zerbitzuak bete behar al ditut?

Bai. Arduratsua izan behar duzu gutxieneko zerbitzuak betetzen, enpresak zerbitzu horiek emateko izendatu baldin bazaitu. Enpresa izango da izendapen horren eta egin beharreko zerbitzuen berri emango dizuna.

8. Greba egin dezaket probaldian baldin banago?

Bai. Probaldian lan-eskubide berberak dituzu, atzera-egite librea izan ezik. Baina atzera-egite libre horrek mugak ditu eta ezin ditu oinarrizko eskubideak urratu, hortaz, atzera-egitea greba eskubidea erabiltzeagatik egiten bada, baliogabea da eta enpresak berriz hartu beharke zintuzke.

9. Greba eskubidea dut autonomoa edo ekonomikoki menpekoa baldin banaiz?

Ez. Greba soldatapeko langileentzat deitzen da soilik. Horrek ez du esan nahi greba ezin duzula egin, autonomoa izanik horretarako askatasuna duzu, baina greba eskubideak ez zaitu babesten bezeroekiko harremanean ezta bere ondorioetan ere. Zure egoera eta zure kontratua aztertu beharko duzu. Egia da gai hau 2007tik eztabaidatzen ari dela, batez ere ekonomikoki menpeko diren autonomoei loturik, baina debate hori kontuan hartuta ere, printzipioz, erantzuna ezezkoa da.

10. Greba eskubidea dut langile autonomo faltsua baldin banaiz?

Bai eta ez. Bai, benetan existitzen den mendekotasunak ezartzen duelako zure langile-egoera, eta ez legeari iruzur egiten dion kontratu horrek. Ez, kontratu hori aurkaratzen ez den bitartean autonomia zarelako eragin guztietarako, aurreko galderan azaldutako egoeran, berezitasun batekin: egoera faltsu horrek eragotzi egiten dizula askatasunez erabakitzea langile autonomoaren zerbitzua noiz eskaini (kontratuetan gai honen inguruan txertatu diren ñabardurak kontuan hartuta), izan ere, zure kasuan askatasun hori ez da existitzen praktikan. Langile autonomo faltsua bazara, eta greba egitea erabakitzen baduzu, eta enpresak errepresaliak hartzen baditu, aldeztu aurretik frogatu beharko duzu, epaiketa batean, benetan langile autonomo faltsua zarela.

11. Greba eskubidea dut elkarlaneko kooperatiba bateko lan-bazkidea banaiz?

Ez, Espainiak ez dituelako Lanaren Nazioarteko Erakundearen (OITren) hitzarmenak betetzen.

12. Greba eskubidea dut etxeko langilea banaiz?

Bai, OITk hala dioelako. Bai, zure oinarrizko eskubideak urratuko liratekeelako. Bai, ezaugarri bereziak dituen lan-harremana arautzen duen Errege-Dekretuak 7. artikuluan honela dioelako: “Langileak errege-dekretu honetan ezarritako eskubide eta betebeharrak izango ditu, baita Langile Estatutuko 4 eta 5 artikuluetakoak ere. Eta 4.1 artikuluan Langile Estatutuak honela dio: 1. Langileek oinarrizko eskubideen artean, honakoak dituzte, hauetako bakoitzak araudi zehatzak ezartzen dituen eduki eta eraginak dituelarik: ... e) Greba”.

13. Errepresalien aurka gainerako langileek bezainbesteko babesak dut etxeko langilea izanik?

Bai eta ez. Bai, legearen arabera. Ez, epaile batzuek egiten duten legearen interpretazioaren arabera. Hala, zenbait epaik onartu dutenaren arabera, etxeko langilearen kaleratzea baliorik gabe geratzean langilea berriz hartu behar da. Baina beste hainbat epaik irtenbide bat sortu zuten, enplegu-emailea ez behartzeko bere konfiantzazkoa ez den emakume bat berriz hartzera, eta adibidez, emakume bat kaleratu zuen haurdun zegoelako. Kontuan izan behar da bigarrena dela doktrinarik ohikoena eta, gainera, gehien aplikatu dena, Justizia Auzitegi Nagusien epaia izateagatik eta ez lehen instantziako epaitegi batena. Gerta liteke hau aldatzea eta Auzitegi Konstituzionaleraino eta Estrasburgoraino iristea, baina gaur gaurkoz hau da errealitatea eta ezinbestekoa da hau jakinaraztea.

14. Legezkoa al da CNTk deitutako 24 orduko greba?

Bai, CNTk deitutako greba erabat legezkoa da. Greba deitu ahal izateko sindikatu batek bete behar duen betekizuna greba egiten den lurraldean ezarpena izatea da. Ez dago beste baldintzarik, ezta afiliazioko inguruan ere.

15. Nire enpresan ez dago enpresa-batzorderik, ezta sindikaturik ere. Hiri dela eta ezin dut greba egin?

Lantokian edo ekoizpen-unitatean sindikatu edo enpresa-batzorderik ez existitzeak ez du langileen greba-eskubidea mugatzen. Legetestuetan ez da kontrakorik adierazten eta, enpresak greba ezin dela egin esaten badu, gezurretan egongo litzateke. Greba orokorrera joateko baldintza bakarra lurraldean ezarpena duen sindikatu batek deitu izana da, baita honek ezarritako prozedura-baldintzak betetzea (aurreabisua, deialdiaren gutxieneko edukia, etab.)

16. 24 orduko greba egin dezaket nire sindikatuak lanuzte partzialak deitu baditu?

Edozein langilek 24 orduko greba-deialdiarekin bat egin dezake, eta edozein sindikatuk ezin izango du eskubide horren erabilera mugatu, nahiz eta afiliatua izan. Beraz, 24 orduko greba egin dezakezu, berdin ematen du afiliatuta zauden sindikatuak esaten duena

17. Greba egin dezaket sindikatu batera afiliatuta ez egon arren?

Noski, edozein langilek greba egin dezake, nahiz eta sindikatuko baten kide ez izan. Langile guztiek greba eskubidea erabiltzeko eskubidea dute. Greba-eskubidearen erabilera afiliatoria mugatzea, greba egiteko eskubidea mugatzea litzateke, eta horrek ez luke inolako justifikaziorik.

18. Bekaduna banaiz, ba al dut greba egiteko eskubiderik ?

Ez. Egia da badaudela benetan ez diren bekak, ezkutuko lana direnak baizik. Baina iruzurra bada, lehenik epaitegi batean argitu beharko du. Bekadun bat ikaslea da. Greba-eskubideak ez du “ez etortzea” babesten. Bekaren baldintzak ikusi beharko dituzu, zein ondorio izan ditzakeen jakiteko.



**Dirulaguntzak gabe,
liberaturik gabe.**